

Amets Zubizarreta Etxaniz

D maila • 2 saria

Ni Amets Zubizarreta Etxaniz naiz eta 12 urte ditut. Beasaindarra naiz. Kirola egitea asko gustatzen zait. Irakurtzea eta idaztea gustuko ditut eta bertsotan ere jarduten naiz. Musika ere asko gustatzen zait. Asko poztu nintzen idazlan lehiaketan nire bertsoak 2. saria lortu zuela esan zidatenean. Ea gustatzen zaizuen bertsoa!



Doinua: Badira hiru aste

AURRERAKUNTZA

Amazonetik eskatzen dugu
merke-merke eskaria,
etxeraino ekartzen digute
eskatutako guztia,
banatzailea baldin bazara
ez da erraza bizia,
gutxiengoarentzat dirua
gehienentzat miseria

Argazki on bat ateratzeko
filtroekin gora-behera,
gero segidan editatuta
dotore Instagramera,
azkenean agertzen den hori
benetakoa ote da?
Argazki alaietan bizi den
gizarte triste bat gera

BERTSOAK

Gaur egun jada ez dira mapak
poltsikotik ateratzen
mugikorra hartuz hasten gara
Google Mapsean bilatzen,
bertan daudelako bide denak
eta zenbat leku izen,
nahiz ez jakin guk nora goazen
ez eta nondik gatozen

Edozein txokotatik gaur egun
deitzen diogu elkarri,
galdera bat eduki orduko
bilatzailean ezarri,
behar ditugun erantzun denak
ditugu eskuragarri,
baina galdera onak egiten
huts egiten dugu sarri